

Ustezko kazetaritza

Koldo Sagasti

Uda garaiko albistegiak errepikakorrak dira oso. Lehengo egunean, ETBkoa iazkoa ere izan zitekeen Pernandoren egia batekin ireki zuten: «Uda da eta beroa egiten du». Eta beroaldiari aurre egiteko betiko aholku txatxuak erantsi zizkioten: «itzalpean ibili behar da, ur asko edan». Bigarren berria ere, bero-boladak bezala, udarako klasiko-etako bat bilakatzeko bidean den horietako bat, jai giroko erasoaldi matxistak. Egunez egun, eguraldiaren iragarpenaren gisa, hango eta hemengo jaialdietan bortxaketa saiakera bat izan dela kontatzen digute. Egun hartako albistegian, baina, bereziki eman zidan arreta erredakziogile-

ek berria emateko aukeratutako lerrobu-ruak: “Ustezko eraso matxistaren egileak epaituko dituzte Iruñeko Auzitegian”. Alegia, ustezkoa da eraso, ez egileak. Uler nezakeen, akaso, hedabide ofizial bati aurrei-kusten zaion zuzentasun politikoaren izenean, “eraso matxistaren ustezko egileak” esatea; izan ere, legalki, ezin zaio inori delitu baten erantzukizuna leporatu epai-le batek hala ebatzi arte. “Ustezko erasoaz” aritzeak, berriz, bestelako esanahia irado-kitzen du. Erasoa ustezkoa dela badiogu, zalantzaren itzala erasotakoaren kontaki-zunaren gainean zabaltzen dugu, kolokan jartzen dugu salataria benetan erasoaldi baten biktima izan ote den, edo akaso, mo-

tibo ezkuturen batengatik, testigantza fal-tsua eman ote duen. Erasoa ustezkoa bada, erasotakoa da bere jarrera justifikatu be-har duena, zergatik ote zebilen parrandan halako lekutan, halako ordutan, halako konpainiekin, horrela jantzita... Geroztik, adi-adi erreparatu diot albiste-gietako erredakzioari eta tamalez egiazta-tu ahal izan dut terrorismo matxistaren kasuetan “ustezko erasoak” aipatzea nor-ma dela. Horixe da, nonbait, ETBko estilo liburua, erasoen erantzukizunaren jomu-gan erasotakoak jartzea. Eta jokaera hori errepikakorregia da salbuespena izateko. Udaro beroa egiten duela bezain errepika-korra. •

Eliteko gorputzak

Mirari Martiarena

Lau urtean behin gertatzen den be-zala, abuztu osoa daramagu Olin-piar Jokoen jarraipena egiten. Gehiago edo gutxiago jarraituko genituen: batzuek gustuko duten kirola, besteek euskal kirolariak bakarrik eta beste batzuek jokatzaren diren kirol moda-litate guztiak. Bihar bukatuko dira eta ki-rolari batzuen gorputzak kritiken jopun-tu izan dira. “Olinpikoak izateko eskubiderik ba al dute lodiek?” bezalako titularrak irakurri ditugu. Robel Kiros Habte igerilari etiopiarra, *Balea* ezizenez bataiatua; Teresa Almeida Angolako es-kubalo selekzioko atezaina edo Alexa Moreno gimnasta mexikarra ere izan di-ra hizpide. Hirurak euren pisuagatik kri-tikatuagoak egin dituzten partiduenegatik

edo erakustaldiengatik baino. Eliteko ki-rolariak direla zalantzan jartzearaino. Hara non, elitea aipatuta, Euskal Telebis-tako iragarki batek piztu dit arreta. “Cuer-pos de élite” izeneko saio bat estreinatuko dute laster ETB2an eta aste honetan egin dituzte hautaprobak. Iragarkian kiloak so-beran dituzten pertsonak eta kilo horiek galtzeko gogoz daudenak eskatzen zituz-ten, baina garrantzitsuena umore ona iza-tea zela zioen. Saioaren helburua profesio-nalen laguntzarekin hamar astetan argaltzea omen da. Iragarkia irakurrita neure burua imajinatu dut *casting*-ean: «Kaixo, Mirari naiz, 29 urte ditut, 80 kilo eta oso umoretsua naiz. Neure buruari ba-rre egitea gustatzen zait, baina proba ho-netara zuei barre egitera etorri naiz...».

Hortik aurrerakoak nire baitarako gordeko ditut. Ez dakit saioaren egitura zein izango den, ezta nola landuko duten argaltzearena ere, nahiz eta susma dezakedan. Zilegi da argaldu nahi izatea, neronek ere egin bai-tut, baina hamar astetako lana baino askoz gehiago izan da. Animoak eta gogoak, pi-suak bezalaxe, gora eta behera egin izan dute nire kasuan behintzat. Baina kontua betikoa da: gorputzak kriti-katzea. Gurea ez dela onena esatea, pentsa-tzea eta sentitzea. Eliteko gorputzak behar ditugula salduko digute berriz ere telebis-tan. Ariketak ezinean egiten ari diren per-tsonei barre egingo diegu etxeko sofatik. Robel Kiros Habte, Teresa Almeida edo Ale-xa Moreno Olinpiar Jokotako eliteko kiro-lariak kritikatu ditugun modu berean. •